

Maila	Irakasgaia	Ebaluazio-sistema	Prozedura	Oharrak
1º	Informatikaren Oinarriak	Ez-ohiko deialdia eGelan ezarritako test proben bitartez burutuko da. Proba hauek aukera anitzeko galderak eta erantzun laburreko galderak izango dituzte.	Ez-ohiko deialdia eGelan ezarritako test proben bitartez burutuko da. Proba hauek aukera anitzeko galderak eta erantzun laburreko galderak izango dituzte.	
	Aljebra	Ez-ohiko deialdiko notaren 10 puntuak ekainak 16ean burutuko den proba ez-presentzialaren bitartez ezarriko dira.	Ariketa teoriko-praktikoak burutu eta entregatu beharko dira, saio ezberdinetan eta era sekuentzialean. Saio bakoitzean, eGelaren edo posta elektronikoaren bitartez, ikasleek denbora tarte mugatua izango dute ariketa edo problema ebazteko. Ikasle bakoitzari proposaturiko ariketa edo problema ezberdina izateko aukera dago. Ikasleek ariketaren ebazpenari argazkia atera edo eskaneatu eta posta elektronikoaren edo eGelaren bitartez bidali beharko dute, irakasgaiaren arduradunaren jarraibideen arabera. Ariketen ebazpenik entregatzen ez bada, ondorio guztietarako ez aurkeztukotzat joko da.	Ikasleren batek proba ez presentziala burutzeko konexio arazorik izango balu, Ikasleen eta Enplegarritasunaren arloko Errektoreordetzari jakinarazi beharko dio (vicer.alumnado@ehu.eus) irtenbidea aurkitzeko. Proba martxan dagoen bitartean ikasleren batek konexio arazorik izango balu, ebidentziak jaso beharko ditu eta irakasgaiaren arduradunari jakinarazi beharko dio horretarako gaitua egongo den telefonoaren bitartez.
2º	Materialen Zientzia	Irakaskuntza-gidan jasotako ebaluazio-sistema mantentzen da: azterketa (%70), laborategiko txostena (%20) eta talde-lana (%10).	Azterketa (notaren %70) galdetegi baten bitartez burutuko da. Laborategiko txostenaren notari dagokionez (%20), ohiko deialdiko nota mantenduko da atal hau gainditu zuten ikasleen kasuan. Ohiko deialdian laborategiko azterketa gainditu ez zuten ikasleek laborategiko jarduerari buruzko galdetegia burutu beharko dute. Talde-lana jarduera borondatezkoa zen ohiko deialdian. Beraz, kasu honetan ere, jarduera hori burutu zuten ikasleei nota mantenduko zaie. Aurkeztu ez zuten ikasleek orain aukera daukate lana aurkezteko. Galdetegiak edo talde-lana aurkezteko epea Eskolak ez -ohiko deialdian azterketa burutzeko ezarritako eguna izango da.	Ebaluazio bakarra eskatu zuten ikasleek galdetegi bakarra erantzun beharko dute. Laborategiko saiakeren inguruko galderak ere agertuko dira bertan.
	Industria Elektronika	Irakaskuntza-gidan jasotako ebaluazio-sistema mantentzen da: azterketa (%100)	Azterketa posta elektronikoaren bitartez eramango da aurrera. Ikasle bakoitzak problemak banan banan jasoko ditu (ez da azterketa osoa aldi berean jasoko). Ariketa bakoitza ebazteko denbora mugatua izango da. Ikasle bakoitzak irakasle arduradunari ezarritako denbora epe horren barruan ebazpenaren argazkia edo dokumentu eskaneatua bidaliko dio posta elektronikoaren bitartez. Irakasleak azterketaren garapen zuzena bermatzeko zerbait neurri har ditzake (esaterako, problema ezberdinak erabiltzea, ariketa berdina ez bidaltzea aldi berean ikasle guztiei, etab.)	
	Ingeniaritza Termikoa	Irakaskuntza-gidan jasotako ebaluazio-sistema mantentzen da.	Proba idatzia burutzeko egelan "zeregina" deritzen baliabidea irekiko da. Bertan azterketaren atal praktikoa adieraziko da eta horren bitartez igoko da ariketaren ebazpena ezarritako denbora epean. Irakasleak azterketaren garapen zuzena bermatzeko zerbait neurri har ditzake (esaterako, problema ezberdinak erabiltzea, ariketa berdina ez bidaltzea aldi berean ikasle guztiei, etab.). Horretaz gain, azterketaren atal teorikoa burutzeko galdera anitzeko test-probak, galdera motzak, etab. bezalako baliabideak erabiliko dira.	
3º	Kimika Analitiko	Irakaskuntza-gidan jasotako ebaluazio-sistema mantentzen da: azterketa (%100)	Proba idatzia burutzeko egelan "zeregina" deritzen baliabidea irekiko da. Bertan azterketaren atal praktikoa adieraziko da eta horren bitartez igoko da ariketaren ebazpena ezarritako denbora epean. Horretaz gain, azterketaren atal teorikoa burutzeko galdera anitzeko test-probak, galdera motzak, etab. bezalako baliabideak erabiliko dira.	
	Ingeniaritza Kimikoko Esperimentazioa I	Ez dagokio deialdi honetan		Ikasle guztiak gainditu dute.

Maila	Irakasgaia	Ebaluazio-sistema	Prozedura	Oharrak
	Kimika Fisikoa	Ahozko azterketa teoriko-praktikoa	Bideokonferentzia	
	Erreakzio Kimikoaren Ingeniaritza	Notaren %100 suposatuko duen lan bakarra burutuko da. Edozein kasutan, ohiko deialdian gelako praktketan ≥ 5 -ko nota duten ikasleek, nota hori mantentzeko aukera daukate, %25ko pisuarekin (beraz, burutu beharreko lanak %75a suposatuko du). Lana burutzeko irakasleak ezarritako galdera eta ariketa sorta erantzun beharko da. Lana aurkezteko epea Eskolak ez -ohiko deialdian azterketa burutzeko ezarritako eguna izango da: ekainak 24.	Lana osatzen duten galdera eta ariketa sorta eGelan eskuragarri egongo da, entregatzeko epea baino ≥ 7 egun lehenago. Lanak pdf formatuan posta elektronikoaren bitartez bidaliko dira.	
4º	English for Industrial Engineering	Irakaskuntza-gidan jasotako ebaluazio-sistema mantentzen da, baina kasu honetan azterketa ez presentziala izango da.	eGelan era sekuentzialean agertuko diren hurrengo ariketek osatuko dute azterketa: 18 minututan, gramatika eta testuliburuko hiztegiari buruzko 20 galderaz osatutako galdetegia (%20); 20 minututan, testuliburuaren antzerako maila duten testuaren inguruko ariketak edo galderak (%20); 20 minututan, gehienez bi aldiz entzun ahal izango den audioaren inguruko ariketak (%20); 15 minututan, ahoskatzeko trebetasunak lantzen dituzten ariketak (%20); 30 minututan, testuliburuaren agertzen diren gaien antzerako testuak idatzi (luze bakarra edo luzeera motzeko bi testu) (%20).	Azterketen ebazpena modu ez presentzialean garatzea zailtasunak ditu, izan ere, ikasleek testuliburua eskura daukate, beste pertsonen laguntza jaso dezakete eta interneteko baliabideetara ere jo dezakete. Horrez gain, eGelan audioak eta beste motatako ariketak ezartzea ere ez da erraza. Digitalizazio prozesu honek erroka itzela suposatzen du eta hori gainditzeko asmoz UPV/EHU-k eskainitako baliabideak eta norberaren ekimenarekin aurrera ateratzen saiatuko da irakaslea.
	Proiektuen Kudeaketa	Test-proba eta/edo problemak: %100	Online izango da, eGelan agertzen den "Galdetegia" baliabidearen bitartez, ezarritako egun eta orduan, denbora epe mugatua. Azkenik, dokumentazioa ere erabili ahal izango da proban zehar.	Egoera berriari aurre egiteko, ikasleak dokumentazioa erabili ahal izango du.
	Euskararen Arauak eta Erabilerak	Irakaskuntza-gidan jasotakoa mantenduko da: batetik, irakaskuntza landutako gaien buruzko galderak nahiz testa eta ariketak (%65) eta, bestetik, zehaztutako gai bati buruzko edo emandako artikulua bati buruzko idazlana: (%35).	Azterketaren zati biak eGelan txertatuko dira. Lehenengo zatia galdetegi baten bidez egingo da eta bigarren zatia "zereginak" delako aukeraren bidez entregatuko da. Epea azterketaren eguna izango da.	
	Ekoizpenaren Antolakuntza	Irakaskuntza-gidan jasotako ebaluazio-sistema mantentzen da: azterketa (%100)	Eskolak ezarritako egunean eta orduan burutuko da, BBC plataformaren bitartez, aldi berean eta 4 irakasleen ikuskapenarekin. Behin azterketa bukatutzat ematen denean, azterketa pdf formatuan eGelara igoko da.	
	Kudeaketa Integratuko Sistemak	Irakaskuntza-gidan jasotako ebaluazio-sistema mantentzen da: azterketa (%100). Ebaluazio jarraia burutu duten ikasleentzako azterketaren notak irakaskuntzaren %60a suposatuko du. Ebaluazio jarraia uko egin dioten ikasleen kasuan, azterketaren balioa notaren %100 izango da.	Azterketa online burutuko da eGelan. Horretarako "Galdetegia" baliabidea erabiliko da, erantzun anitzeko test probaren bitartez. Probaren denbora mugatu egingo da. Bi saiakera izango dituzte ikasleek erantzunak aukeratzeko garaian. Erantzuna okerra izatekotan, galderaren puntuazioaren %33.33-ko beharpena izango dute.	Bi proba mota burutuko dira: ebaluazio jarraia aukeratu duten ikasleek eduki teorikoaren inguruko galderak erantzun beharko dituzte. Beste ikasle guztiek, eduki teorikoez gain, ISO:9001, ISO:14001 eta ISO:45001 arauen inguruko galderak ere erantzun beharko dituzte.
	Ingurumen Teknologia	Irakaskuntza-gidan jasotako ebaluazio-sistema mantentzen da: azterketa (%100)	Azterketa online burutuko da eGelan, Eskolak ez-ohiko deialdirako ezarritako egun eta orduan.	